

HAUTAKETA PROBEN DEIALDIAREN OINARRIAK HONAKO LANPOSTU HAU BITARTEKO ERREGIMENEAN BETETZEKO: TEKNIKARI BAT, ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, AZPIESKALA TEKNIKOA, ERDI MAILAKO TEKNIKARI MOTA, A2 AZPITALDEA: BERDINTASUNEKO TEKNIKARIA.

Epaimahaiak, 2020ko urtarrilaren 23an, honako erabaki hartu du aho batez:

"2019ko abenduaren 19an Epaimahaiak hartutako Erabakian onartutako Lehen ariketaren emaitzetan akats materialak atzeman direnez, zuzenketa eain behar da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 2015/39 Legearen 109.2. artikuluari jarraituz.

Adierazitako guztiagatik, Epaimahaiak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

Lehenengoa.- Bigarren ariketa egiteko data eta ordua adieraztea:

BIGARREN ARIKETA, DERRIGORREZKOA ETA BAZTERTZAILEA: PROBA PRAKTIKOA: proba 2020ko otsailaren 11an egingo da, goizeko 12:00an, Casa Torre Jauregian, 5 zenb., Santurtzi, Bizkaia.

Nortasun-agiria eraman beharko da ariketa guztietara, edo bestela, epaimahaiaren iritziz nortasuna behar bezala egiaztatzen duen beste edozein agiri.

Bigarrena.- *Honako erabaki hau Santurtziko Udaleko iragarki-taula elektronikoan argitaratzea, bai eta adieraztea ere zein diren interesatuek berorren aurka jar ditzaketen errekurtsuak."*

Horrela argitaratu da dagozkion ondorioetarako, jakinaraziz administrazio-bidean behin-betikoa ez den egintza horren aurka interesatuek **GORA JOTZEKO ERREKURTSOA** jartzeko aukera dutela honako hau argitaratu eta hilabeteko epean Santurtziko Udaleko alkate-udalburuaren aurrean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 2015/39 legearen 121 eta 122. artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Hori guztiori euren eskubideak hobeto defendatzeko aldera egoki deritzen bestelako ekintza edo errekurtsoei ezertan eragotzi gabe.

Santurtzin, 2020ko urtarrilaren 23an.

EPAIMAHAIAREN IDAZKARIA.

